17/03/2020 13:16:45
Berako Alkatea
AITOR ELEXPURU EGAÑ A

BERAKO UDALA
herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005
31780 BERA
NAFARROA
.bera.eus
bera@bera.eus

**60/2020 EBAZPENA, MARTXOAREN 17koa, BERAKO UDALEKO ALKATEAK EMANA, PREBENTZIO NEURRIAK HARTZEN DITUENA UDALAREN MENPEKO LANTOKIETAN, KORONABIRUSAREN (COVID-19) EBOLUZIO EPIDEMIOLOGIKOA DELA-ETA.**

Koronabirusaren (COVID-19) eboluzioa dela-eta suertatutako ohiz kanpoko egoerak ekarri du martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onestea, alarma egoera deklaratzen duena COVID-19ren ondoriozko osasun krisiko egoera kudeatzeko xedez, zeinak ondorioak baititu 2020ko martxoaren 14tik aurrera.

Hori horrela, ikusita salbuespenekoa dela egoera, bidezkoa da zenbait neurri hartzea Berako Udalaren zerbitzuko langileei dagokienez, haien babesa eta eskubideak bermatzearren.

Horrenbestez, eta esleiturik ditudan ahalmenak erabiliz, ondoko hau

**EBAZTEN DUT:**

1. Lantokietan hartu beharreko neurriak.

Bi metroko tartea bermatuko da, gutxi gorabehera, lanpostuen artean. Neurri hori bete dadin, neurriak hartu ahalko dira: telelana edo presentziala ez den lanaren modalitateak, langileak lantokian antolatzea lanaldi arruntaren barnean lan presentziala eta ez presentziala tartekatuz edo bestelako neurri batzuk.

Langileek zorrozki eta hertsiki bete behar dituzte eskuak garbitzeko neurriak, elkarren arteko tarteak gordetzekoak eta arnasa hartzekoak, osasun arloko agintariek hartu dituztenak.

**RESOLUCIÓN 60/2020, DE 17 DE MARZO, DEL ALCALDE DEL AYUNTAMIENTO DE BERA, POR LA QUE SE ADOPTAN MEDIDAS PREVENTIVAS EN LOS LUGARES DE TRABAJO DEPENDIENTES DEL AYUNTAMIENTO COMO CONSECUENCIA DE LA EVOLUCIÓN EPIDEMIOLÓGICA DEL CORONAVIRUS (COVID-19).**

La situación extraordinaria generada por la evolución del coronavirus COVID-19 ha determinado la aprobación del Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, por el que se declara el estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19 con efectos del día 14 de marzo de 2020.

En su virtud, a la vista de la excepcional situación creada procede acordar, respecto del personal al servicio del Ayuntamiento de Bera, determinadas medidas en orden a garantizar su protección y sus derechos.

En consecuencia, y en uso de las facultades que tengo asignadas,

**RESUELVO:**

1.- Medidas preventivas a adoptar en los centros de trabajo.

Se garantizará la distancia de aproximadamente dos metros entre puestos de trabajo. Se podrán arbitrar medidas organizativas –teletrabajo o modalidades de trabajo no presencial, organización de la presencia del personal en el centro de trabajo dentro de la jornada ordinaria combinando trabajo presencial con no presencial u otras medidas– en orden a garantizar el cumplimiento de esta medida.

El personal deberá seguir escrupulosamente las medidas de higiene de manos, distanciamiento social y medidas respiratorias dictadas por las autoridades sanitarias, extremando su seguimiento.

17/03/2020 13:22:35
MIGUEL J. BELARRA TELLECHEA-IDAZKARIA/SECRETARIO
(Originala digitalki sinatua / Firmado digitalmente)

2. Bilerak.

Aurreko puntuko neurriak lan bileretan ere aplikatuko da. Izan ere, zerbitzu publikoak emateko ezinbestekotzat jotzen diren bilerak baino ez dira eginen.

3. Bertan behera gelditzen da udal bulegoetan jendeari ematen zaion arreta. Telefono bidez eta modu telematikoan emanen da arreta.

Salbuetsita dago udal agenteak ematen duen arreta, segurtasun publikoko funtsezko zerbitzu publikoa den aldetik.

4. Udalaren zerbitzuko langileak kolektibo kalteberetan edo arriskuko populaziokoetan egon daitezkeenean, zerbitzu presentziala eman behar badute, eskaera bat aurkeztuko dute Udalak haien egoera azter dezan banan-banan laneko arriskuen prebentzioari begira, eta jarraibideak eman diezazkien zerbitzuak emateari dagokionez.

Puntu honetan aurreikusitako ondorioetarako, kolektibo kalteberak edo arriskukoak izanen dira osasun arloko agintaritzak hala jotakoak.

5. Beharrezko neurriak hartu ahalko dira antolamenduan, bateragarriak izan daitezen langileei dagozkien prebentzio neurriak, betiere osasun arloko agintaritzaren jarraibideak beteko dituztenak, eta zerbitzu publikoa.

Ondorio horietarako, neurri hauek har daitezke:

a) Lanaldia malgutzea, indarrean dagoen araudian eta 2020ko lan-egutegian aurreikusitako mugei lotu gabe.

b) Ezinbestekoa denean, langileak etxean gelditzeko baimena eman ahalko da, eta hala

2.- Reuniones.

La medida señalada en el punto anterior se aplicará igualmente a las reuniones de trabajo, cuya celebración se limitará a aquellas que se consideren absolutamente imprescindibles para garantizar la prestación de los servicios públicos.

3.- Se suspende la atención al público en las oficinas municipales. La atención se realizará de manera telefónica y telemática.

Se exceptúa la atención prestada por el Agente Municipal, en su calidad de servicio público esencial de seguridad pública.

4.- El personal al servicio del Ayuntamiento que pueda incardinarse dentro de los colectivos vulnerables o de riesgo de la población y que deba prestar servicio presencial, deberá presentar una solicitud para que este valore individualmente su situación a efectos de prevención de riesgos laborales y le facilite las instrucciones correspondientes en cuanto a su prestación de servicios.

A los efectos de lo previsto en este punto, tendrán la consideración de colectivos vulnerables o de riesgo aquellos que defina la autoridad sanitaria.

5.- Se podrán adoptar las medidas organizativas necesarias para conjugar la garantía de las medidas preventivas en relación con el personal, siguiendo en todo momento las indicaciones de la autoridad sanitaria, con la prestación del servicio público.

A estos efectos, podrán aplicarse las siguientes medidas:

a) Flexibilización de la jornada laboral sin sujeción a los límites previstos en la normativa vigente y calendario laboral del año 2020.

b) En el caso de que sea imprescindible, se podrá permitir la permanencia del personal

egitea ezinbesteko eginbehartzat hartuko da, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onetsi zuen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

en su domicilio, teniendo la consideración de deber inexcusable de conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 del Decreto Foral 11/2009, de 9 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de vacaciones, licencias y permisos del personal funcionario de las Administraciones Públicas de Navarra.

6. Aldi baterako bertan behera uztea lantokietan.

6.- Suspensión temporal de actividades en centros de trabajo.

Osasun arloko agintaritzak erabakitzen badu lantokiak ixtea edo jarduna bertan behera uztea, unitate edo lantoki horietako langileek etxean ematen duten denbora benetako lantzat hartuko da.

La permanencia en el domicilio del personal que preste servicios en centros de trabajo en los que se determine por parte de la autoridad sanitaria su cierre o suspensión de actividad tendrá la consideración de tiempo de trabajo efectivo.

Aurrekoa ezertan ukatu gabe, langile horiek bete beharko dituzte kasuan kasuko arduradunen jarraibideak, uneren batean esleitzen bazaizkie etxetik egiten ahal dituzten lan edo eginkizun ez presentzialak.

Sin perjuicio de lo anterior, este personal deberá seguir las indicaciones de los órganos responsables del mismo en cuanto a la eventual encomienda de tareas o trabajos en modalidad no presencial que puedan realizar desde su domicilio.

7. Udalak bermatuko du lantokiak egunero garbitzen direla.

7.- Se garantizará la limpieza de los espacios de trabajo con periodicidad diaria.

8. Ezinbesteko kasuetara mugatuko da Berako Udalaren zerbitzuko langileak ez diren pertsonak lantokietara sartzea.

8.- Se limitará a los casos imprescindibles la entrada a los centros de trabajo de personas que no reúnan la condición de personal al servicio del Ayuntamiento de Bera.

9. Langileentzako eremu komunen erabilera murriztuko da (aldagelak, jangelak, bilera aretoak, kafea hartzekoak eta antzekoak). Haien erabilera baimentzeko, adierazitako segurtasun tartea bermatu behar da, eta soilik ezinbestekoa denean zerbitzu publikoa behar bezala emateko.

9.- Se restringirá el uso de zonas comunes del personal (vestuarios, comedores, salas de reuniones, de café y similares). Únicamente se permitirá el mismo en los casos en que pueda garantizarse la distancia de seguridad indicada y únicamente en los casos en que sea imprescindible su uso para la adecuada prestación del servicio público.

10. Mugitzeko arazoak dituzten pertsonek behar-beharrezkoa duten kasuetara mugatzen da igogailuen eta karga-jasogailuen erabilera, eta banan-banan erabili beharko dira beti, posible bada.

10.- Se limita el uso de ascensores y montacargas a los casos en que sea absolutamente imprescindible para personas con problemas de movilidad y en todo caso deberán ser usados individualmente, siempre que esto sea posible.

11. Ebazpen honek sinatzen den unetik izango ditu ondorioak, naiz eta neurri guztiak 2020ko martxoaren 16tik aurrera aplikatzen diren jada.

12. Ebazpen hau argitaratzea webgunean eta egoitza elektronikoan.

ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña.

11.- Esta Resolución producirá efectos desde el momento de su firma, si bien la totalidad de las medidas se aplican ya desde el día 16 de marzo de 2020.

12.- Publicar esta Resolución en la página web y Sede Electrónica.

EL ALCALDE,

FEDE EMATEN DUT/ DOY FE:
IDAZKARIA/ SECRETARIO,
Miguel J. Belarra Tellechea.